

Ingurumen Buletina

- 1. Errigora, "Nafarroa hegoaldeko uzta, euskarari puzka"***
- 2. Alternatiba ospatu da Zokoan, eta 2015ean Hegoalden egingo dugu!***
- 3. Errekuperazio ekonomikoa energia berriztagarriekin posible da***
- 4. Hamar puntu, klima-aldaketaren aurkako estrategia sindikal baterako***

1. Errigora, “Nafarroa hegoaldeko uzta, euskarari puzka”

Kanpaina hau Zazpiak Bat, Ikastolak, Sortzen, AEK eta Errigorak elkarlanean burutzen dute, eta kanpainak dirauen bitartean beste euskara elkarte, kultur etxe, taberna, udal, lantegi eta kontsumo taldek ere parte hartuko dute. ELAk ere bere indarra jarri nahi du, aurten ere kanpaina arrakastatsua izan dadin.

Kanpainaren xedea Nafar hegoaldeko produktuz betetako saskiak saltzean datza, edozein dendetan izaten duten prezio. Saskia zonaldeko produktu ugaz osatua dago: 2 olio botila, 2 piper poto, potxak, kardoak, mahats zukuak, orburuak, 2 zainzuri lata, tomate saltsa, barazki krema, pikillozko marmelada eta ardo beltza. Guzti hau 50 eurotan saltzen da eta jasotzen den diruaren %25 Nafarroa hegoaldean euskarak duen egoera hobetzera zuzentzen da. Kontuan izan behar da zonalde hau “zona no vascofona” deritzanaren parte dela, eta euskara ez dela ofiziala. Populazioaren %3,9 da euskalduna, eta %10,3 ia euskalduna. Egunero 1.400 ikaslek batez beste 20 kilometro egin behar dituzte euskaraz ikasi ahal izateko. Eta tokiko nekazaritza modu esanguratsuan gutxitu da azken 20 urteetan. Errigorak bi aldarrikapen

hauek uztartzen ditu, euskara eta elikadura burujabetza.

Urriaren 27tik eta azaroaren 12 arte jasoko dira saskien eskaerak, banaketa puntu bakoitzean osatuko dituzte zerrendak eta Errigorara bidali. Ondoren, azaroaren 17 eta 30 bitartean Errigora arduratuko da saskien banaketa egiteaz. Abenduaren 1 eta 7 bitartean egingo da saskien ordainketa.

Ihaz 8.000 saskitik gora banatu ziren 500 banaketa puntutan, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako 160 herritan. Bildu ziren 122.000 euroak Lodosako ikastolako egoera ekonomiko itogarria arintzeko, Erriberako helduen alfabetatzea sustatzen duen kanpaina gauzatzeko eta beka sistema bat martxan jartzeko, eta “Euskaraz bizi eta ikasi” ekimenak bere jardueretarako baliabideak izan ditzan balio izan zuten. Gainera Errigoran parte hartu zuten kontserba fabrikak euskararen erabilera bultzatzeko proiektuetan barneratu ziren, eta aldi berean euskararen presentzia handituz doa beraien web orrietan edo etiketetan.

Aurten, bilduko denaren %25a Erriberako ikastolarentzat, Erriberako AEKrentzat eta “Euskaraz bizi eta ikasi” ekimenaren Hamarrazt proiektuentzat izango dira. Este año el 25% de lo que se

recaude se destinará a la ikastola de Erribera, a AEK de Erribera y al proyecto Hamarratz de la iniciativa popular Vive y aprende en euskara.

Eman izena [banaketa_puntuetako](#) batean eta ez zaitez geratu saskirik gabe. Produktuz betetako saski bat baino gehiago da, Nafarroa hegoaldeko euskara eta elikadura burujabetza lagunduko dituzu. Errigora eta kanpainaren informazio gehiago duzu [bideo honetan](#).

2. Alternatiba ospatu da Zokoan, eta 2015ean Hegoalden egingo dugu!

2013ko urriaren 6an Baionako Alternatibak hasiera eman zion krisi klimatiko, ekologiko eta sozialari aurre egiteko alternatiben herrixken dinamikari. Gaur egun 45 Alternatiba antolatu dira Europako hainbat herritan eta bereziki Frantses Estatuan. Urriaren 4 eta 5ean, 3.000 Alternatiba zale bildu ziren Zokoako Alternatiba arrakastatsuan. Ziburuko portuan egin zen 200 laguntzaileren parte hartzearekin. Zokoan Alternatiba antolatu zuen Bizi!-k aurre ikusia zuena baino 3 aldiz jende gehiago mobilizatu zuen. Dagoeneko 35.000 pertsonatik gora mobilizatu ditu Alternatibak. Aldaketa klimatikoaren arloan horrelako herritar

kopurua konprometitzea azpimarragarria da. Klimaren eta energia krisiaren arazoez gaur egun jendea ohartzen denaren seinale.

Larunbatean, urriaren 4ko hitzaldian, Geneviève Azam eta Jade Lindgaardek aipatu bezala, oinarritik etorritako dinamikak, tokiko dinamikak eta borrokak ezinbestekoak dira, klima aldaketak eta krisi ekonomikoak sorturiko paralisia, tristezia eta hau geldiaraztea ezinezkoa denaren inpresioa gainditzeko. Tokiko dinamikek bat egiten dute mundu mailan klima babesteko beharrarekin. Gainera, energia eta entusiasmoa sortzeko funtsezkoak dira, baita arazoetaz jabetzen ari garela sentitzeko ere. ELAk ere parte hartu zuen hitzaldi honetan, Idazkari Nagusiaren ondokoa den Amaia Muñoak, enplegu berdeei buruz hitz egiten zuen Hego Euskal Herrian 106.400 enplegu berde sortzeko bideak zehaztuz. Hurrengo egunean, Ainhara Plazaola ELAko ingurumen arduradunak Hego Euskal Herriko garraioaren egoeraz eta alternatibez hitz egin zuen.

Herrixka eta bere 5 eremu tematikoak (klima eta ozeanoa, garraioak, urbanismoa/etxe bizitza, kontsumo arduratsua, haurrak) 70 erakusmahai eta tailerrez osatu ziren. Bertan 600 pertsonatik gora parte hartu zuten 4 hitzaldietan.

Zokoako asteburuan jakinarazi zen, Hego Euskal Herrian, Eskubide Sozialen Kartaren Asanbladak, sindikatuak eta mugimendu sozialak biltzen dituenak, erabaki zuela 2015eko urriaren 24ean Bilbon Alternatiba bat antolatzekoa. Aldaketa klimatikoaren kontra eta trantsizio sozial eta ekologiko baten aldeko mobilizazio herrikoia izango da eta guztion lana beharko da aurrera eramateko. Hemen ere kapitalismo basatiaren aurrean alternatibak eraikitzen ari garela erakutsiko dugu Bilboko Alternatiban.

3. Errekuperazio ekonomikoa energia berriztagarriekin posible da

Greenpeace-ek “Errekuperazio ekonomikoa berriztagarriekin” deitzen den lan interesgarria argitaratu du. Lan honekin argi geratu zaigu energia berriztagarriekin ekonomiak (ongi) funtzio dezakeela. 2030 urterako espainiar estaturako eszenatoki ezberdinak aztertzen ditu. Anbiziosoena, lanean “arduratsua” bezala definitzen dena, lortu behar duguna dela uste dugu ELAn. Eszenatoki hau eskaera energetikoa asko gutxitu eta energia fosilen erabilera ia erabat desagertzen dena da. Elektrizitateak energia kontsumo osoaren %42,5a hartuko luke, garraioa eta klimatizazioaren hornikuntzan

gehiengoa izanik, eta elektrizitate sorkuntzaren %94,7 berriztagarria izango litzateke eszenatoki honetan. Iker lan honen arabera, 2030eko eszenatoki arduratsuak ekarriko lituzkeen onurak laburtu ditugu:

- 2015-2030 epean urteko 19.535 milioi euro energia garbia sortzeko instalazio berrietan inbertituko balitz, epe horretan 3 milioi lanpostu zuzen eta zeharkako baino gehiago sortuko lirateke, eta BPGa 2 puntu portzentual haziko litzake.

- Berriztagarrietan oinarrituriko sistema elektriko honek 15,7 milioi tona CO₂ isuriko lituzke 2030ean, hau da, 2012arekiko %75 emisio murrizketa.

- Berriztagarriek onura sozialak ere eskaintzen dituzte. Lurraldeko-kohesioa dakarte suposatzen duten enplegu sorrera eta diru bilketari esker, batez ere instalazio berriztagarri berriak kokatuko liratekeen landa eremuetan.

- Eszenatoki arduratsu hau da etxeetako faktura energetikoan aurreztea ahalbidetzen duen bakarra. Etxeetako gastua %34 murriztuko litzateke 2012arekin alderatuta. Familiek diru sarreren %3,6 bideratuko lukete energiaren faktura ordaintzera (1,8 puntu portzentualeko murrizketa).

- Etxe guztietako faktura murriztuko litzateke,

baina bereziki kolektibo ahulena. Bakarrik bizi diren 65 urtetik gorakoen esfortzu ekonomikoa 2,7 puntutan murriztuko litzateke, pertsona okupaturik ez duten etxeetan murrizketa hau 2,5 puntutakoa izango da, eta hilean 500 euro baino gutxiagoko diru sarrerak dituztenek 4,8 puntutako murrizketa izango lukete beraien energiaren fakturan.

- Energia fosilean oinarritzen den gaur egungo eredu energetikoarekin jarraitzea, ingurumen ikuspuntutik jasanezina izateaz gain, ekonomiko eta sozialki ere ez da iraunkorra.

- Eszenatoki arduratsuaren emaitzek azpimarratzen dute energia berriztagarrien hazkundera energiaren efizientzia eta eskaeraren kudeaketa egokiarekin uztartzearen garrantzia.

Ikerketa honek erakusten du, berriro ere, ELAk egiten duen ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala, zeinek lehentasun gisa energia berriztagarriak dituen, jarraitu behar dugun bidea dela.

4. Hamar puntu, klima-aldaketaren aurkako estrategia sindikal baterako

Hurrengo azaroan Liman NBEren klima aldaketaren inguruko gailurrean, COP20ean, aurrera eramango diren negoziaketen

inguruan, Asbjørn Wahl-ek COP20 prestatzeko NBEk New Yorken eginiko bilera zela eta eginiko ekarpen interesgarria ekarri dugu ingurumen buletinera, non klima aldaketaren aurkako borrokan sindikalgintzaren papera zein den zehazten duen.

Asbjørn Wahl-ek (Aholkularia. Norvegiako Udal Enplegatuen eta Enplegatu Orokorren Sindikatua) Rosa Luxemburg Foundation/Left Labor Project-eko bileran aurkezturiko ekarpena. New York, 2014ko irailaren 18a.

Hamar puntu, klima-aldaketaren aurkako estrategia sindikal baterako

Klima-aldaketaren gai zabala minutu gutxitan azaldu behar dugunez, klima-aldaketaren aurkako estrategia sindikal bat laburbildu dut hamar puntu zehatzetan. Lehenengo eta behin, giltzarri batzuk ezarriko ditut, gero horien gainean gure estrategiak eta politikak eraikitzeko.

1. Klima-aldaketa ez da mehatxu bat gerora begira, orain eta hemen gertatzen ari da. Gizakiak eragin du, eta ekar ditzakeen ondorioak hondamendikoak izan daitezke.

2. Klimaren mehatxuak gogor eragin dezake gizarte-garapenean, bai klima-aldaketaren ondorioz, bai klima-aldaketa saihesteko edo moteltzeko neurriak hartzearen ondorioz.

Gure bizi izateko eta lan egiteko modua nabarmen aldatuko da, egiten duguna dugula ere. Baina ezer egin ezean, edo neurriak geroko utziz gero, mehatxua larriagotuko litzateke, eta hondamen-mailako ondorioak izango genituzke.

3. Klima-aldaketari aurre egiteko neurriak hartzeko, aldaketa handiak egin behar dira gizartean. Aurrean duguna gizarte-borroka handi bat da. Klima-aldaketaren aurkako borroka, batik bat, botere sozialeko borroka da, gogoko dugun gizarte-ereduari buruzko borroka. Oraingo egoeran klima-aldaketaren aurkako borroka beste borroka batekin batera bultzatu behar dugu, alegia, krisi ekonomikoaren —kapitalismoaren krisiaren— ondorioen aurkako borrokarekin batera, krisiaren indar eragileak ere barne.

4. Ekonomiaren hazkundeko gaur egungo sistema eta lehengaien gehiegizko ustiapena ekonomia kapitalistaren barren-barreneko atalak dira. Ikuspegi murrizteko ingurumen-politika bat ez da aski izango. Klimaren eta ingurumenaren borroka testuinguru zabalago baten barruan kokatu behar da. Sistema kritikatzan duen esparru bat behar da. Klima-aldaketari aurrea hartzeko, ekonomiaren gaineko kontrol demokratikoa beharko dugu, eta batik bat energiaren sorkuntza eta

banaketaren gaineko kontrola. Ingurumenaren krisia, ekonomiarena bezala, mehatxua ez ezik, aukera ere bada garrantzizko bezain beharrezko den gizarte-aldaketaren alde ekiteko.

5. Borroka sozial horretan mugimendu sindikalak oso rol garrantzitsua izango du, gizartean duen kokapen estrategikoarengatik. Hala ere, sindikatuak defentsiban daude mundu osoan, indar ekonomikoen presio itzelaren menpean daude. Mugimendu sindikalarentzat, rol nagusi bat hartzea klima-aldaketaren aurkako borrokan berrezarri eta berpiztu beharreko helburua izan behar da.

6. Klimaren inguruko politikak ezin dira mugatu sakrifizio kontu huts batera, ahalegin handiz lorturiko eskubideak sakrifikatzeraz; ingurumen-mugimenduko zenbait sektoretan esaten den bezala. Borroka, batez ere, denontzako gizarte hobe bat lortzeko da. CO² isurketak moteltzeko neurrien finantzaketa aberastasuna birbanatzearen eskutik joan behar da, iparraldetik hegoaldera eta aberatsengandik pobreenganaino. Hori gabe, ezinezkoa izango da sostengu zabala lortzea klima-aldaketaren aurkako politika beharrezkoak aurrera eramateko.

7. Klima-aldaketari aurrea hartzeko, gure gizarteak beste era batera egituratu behar

ditugu. Klimari kalte egiten dioten jarduerak murriztu behar dira, eta aldiz energia berriztagarriak, eraginkortasun energetikoa eta ingurumenerako jasagarri diren jarduerak garatu, beti ere plangintza eta prozedura jakin bati jarraiki; baina hori herrien segurtasun sozio-ekonomikoaren mesedetan joango da. Ezin dugu onartu langile-talde batzuei leporatzea klima-aldaketaren moteltze-neurrien pisua: langabezia eta bazterkeria. Trantsizioa, bestela esanda, bidezkoa izan behar da, plangintza baten arabera, eta modu demokratiko batez gidatua. Egin diren ikerlan zorrotz guztiek frogatu dutenez klima-aldaketaren aurkako politika beharrezkoek lanpostu gehiago sortuko dute, suntsituko dituztenak baino. Hori loturik doa langileek lan-merkatuan duten indarrarekin, lan-orduak murrizteko, eta lana gizartean behar adina banatzeko.

8. Ingurumenaren aldetik gizarte iraunkor batera doan trantsizioak abantaila asko du. Milaka lanpostu berri sortuko dira garraio publikoan, energia berriztagarrietan, etxebizitzak egokitzen, eta industria jasagarrietan. Berotegi-efektuko gasak murrizteak, bide batez, kutsadura murriztuko du lantokietan eta bizilekuetan. Ekonomiaren

gainean kontrol demokratikoa izango balitz, lehia eta lanpostuetako presioa arinduko lirateke. Garapen horren bi ondorio nagusi estres eta presio gutxiago izango dira.

9. Gobernuak eta ekonomia-interes sendoek sustatu dituzten konponbideak, klima-krisitik ateratzeko, merkatuan oinarritu dituzte, batez ere karbonoaren merkataritzan, eta orain arte saiakera guztiek huts egin dute. Mundu-mailako gailurrek ere ez gaituzte salbatuko. Orain arte gure gizarteentzat lortu duguna: gizarte-berdintasuna hedatzea, lan duina, pobrezia murriztea, genero-berdintasuna eta abar, ez dugu lortu mundu-gailurren bidez. Nazioarteko akordioak behar ditugu, bai; baina, horretarako, beharrezkoa da indar sozialak mugiaraztea. Konponbide alternatiboen oinarriak herrien elkartasuna, berdintasuna eta beharrezkoak izan behar dira. Varsoviako azken COP-19an gobernuak eta multinazionalak erakutsi zuten, aurrerapausoak baino, atzerapausoak emango zituztela. Haien beren aukera izan dute, eta huts egin digute. Orain gure txanda da.

10. Borroka sozial horretan arrakasta lortzeko, herrien arteko aliantza zabalak bilbatu behar ditugu epe luzerako. Estrategia hori landu behar dugu bereziki mugimendu sindikalean eta mugimendu ekologistan. Klima-

aldaketaren aurkako borrokak badu zerikusirik
ekonomiaren eta gizartearen
demokratizazioarekin, aberastasunaren
birbanaketarekin, eta gure ezaguera komunen
erabilera askearekin, patenteen hesirik gabe.

Klima salbatzeko, gizartea aldatu behar dugu.
Horrela bakarrik sortu ahal izango ditugu
baldintza egokiak denon bizimodua hobea
izan dadin, gurea eta gure ondorengoen.